

Teodoro Aginaga
Bilbo, Bizkaia (1866)

Aurkibidea

Biografia

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Arotza zen eta 47 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.217

Zintak

BIL-009

- **Proiektua:** Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Data:** 1913-07-17
- **Iraupena:** 3 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Emalea:** OAW

Pasarteak

1. Ikertzaileak aurkitu zituenekoa

- **Erref:** BIL-009/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Eskopeta lepoan hartuta irten da uso-tortolak harrapatzera, bueltaka dabilen auto bat ikusi duenean. Autoan grabazioa egingo ziotenak zeuden: Julio Urkijo eta Rudolf Trebitsch. Beraien euskara idazteko eskatu diote eta horrexetan hasi da.</p>

Transkripzioa

Txomin entzuik gaur jaso jatena. Eguerdi osteko ordu-bijetan urten juat etxetik, eskopetie lepuen duala uso-tortola ondoren, banenbillan, beiñ Pantxiko Muniben solora, eta beiñ Base-lbarko kantera ganera, eta andik ikusi isen juat automobil bat atzera ta aurrera dabillela, beiñ Munibera ta beiñ Okokire, eta neure buruai esaten egon nok, "ser ete jabillek orrek, hainbeste juen-etorriges?". Ilttie baino geijao etxuat bururetu automobiliko gizon aundiki jakittun arek nire premian daosarik eta nire bille dabisenik gitxiao, ta arra gerotxuago nun datorren ariñ-ariñge eta diedar baten jota laatsako zubi alderaño gisonoi aiñ estu ikusi duanian erantzun jeutxat ba kantera burutik eta juenok neu be estu estuke ser ete daben eta nun esateusten Julio Urkijo jaune eta beste jaun prantxes moduko bat dauela itxaitten zubi barriren, eta euskeras eskribidu biotela geuk emen berba eitten dogun les, eldu nok ba jaun orren aurrera txapela eskuen duala eta esan jeutset arratsalde on Jaungoikuek emon daisuela eta esan deustenien ser gure daben eta ser egin bier duan juen nok etxera ta ekin jeutsat eskribitten euskaria maitte duan les, euren eta neure gogue betetan eta ori gaittik gaur[ko nire usotie juen dok pikotara. Amaittu juat. Ta neure ipuin antzeko egijau eta agur Txomin urrengo arte Jaungoikuek naibau].

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com